



Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 48.5 artikulua arabera Arabako Foru Aldundiari dagozkion finantza tutoretzako ahalmenak baliatuz, eta Arabako toki erakundeen mesedetan, kontratu txikiak izapidetzeko instrukzio hau ematen da.

En ejercicio de las facultades de tutela financiera que corresponden a esta Diputación Foral de Álava según el artículo 48.5 de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco y, en interés de las entidades locales de Álava, se emite esta instrucción para la tramitación de contratos menores.

Ezaugarriak:

Kontratu txikiak dira 40.000 eurotik beherako balioa duten obra kontratuak, BEZa aparte, edo 15.000 eurotik beherako hornidura edo zerbitzu kontratuak, BEZa aparte. Hori ezin zaie aplikatu beste kontratu publiko mota batzuei.

Caracterización:

Se consideran contratos menores los contratos de valor inferior a 40.000 euros, IVA excluido, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, IVA excluido, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios. Este supuesto no es aplicable a otras tipologías de contratos públicos.

Kontratazio espedientea hastea:

Kontratu txikietan, espedientea izapidetzeko, txosten bat egin behar da, kontratuaren beharra modu arrazoituan justifikatzeko, eta justifikatzeko ez dela kontratuaren xedea aldatzean ari aurreko apartatuan azaldutako atalaseak aplikatzea saihesteko. Txostena ez da beharrezkoa izango, baldin eta kontratuaren balioa 5.000 eurotik gorakoa ez bada, BEZa aparte.

Inicio del expediente de contratación:

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá la emisión de un informe justificando de manera motivada la necesidad del contrato y que no se está alterando su objeto con el fin de evitar la aplicación de los umbrales descritos en el apartado anterior. El informe no será necesario, siempre y cuando el valor del contrato no exceda de 5.000 euros, IVA excluido.

Obra kontratu txikietan, gainera, obren aurrekontua gehitu behar da, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutelako obra proiektua eduki behar izan ala ez (lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badio, edo arau espezifikoren batek eskatzen badu).

En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto de obras cuando sea requerido por las disposiciones vigentes (cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra, o bien una norma específica no exija).

Era berean, lanak hasi aurretik, kontratazio organoak kontratua onartu eta esleitu behar du (instrukzio honen 3. apartatuaren arabera); bi

Asimismo se requerirá, con carácter previo al inicio de los trabajos, la aprobación del contrato y su adjudicación por el órgano de contratación



horiek aldi berean egin ahal izango dira.

Horrenbestez, horrelako espedienteetan ez da beharrezkoa administrazio agiririk edo agiri teknikorik egitea, ezta lizitazioa Euskadiko kontratazio plataforman argitaratzea ere.

Adjudikazioa:

Kontratu txikiak zuzenean adjudikatu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna eta kontratuaren xedea gauzatzeko behar den lanbide gaitasuna duen edozein enpresariri.

Erakunde bakoitzak araudi propioarik ez duenez, urrats hauek egin behar dira, Kontratazio Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearen 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenaren arabera (ebazpen horren bidez otsailaren 28ko 1/2019 Instrukzioa argitaratu zen, araudi osagarri gisa):

- a) Lehiaren printzipioaren arabera eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurri gisa, kontratazio organoak gutxienez hiru aurrekontu eskatu behar ditu, eta hori behar bezala egiaztatuta geratu behar da espedienteetan.
- b) Aurrekontua eskatu zaien enpresek aurrekontua egiteari uko egiten badiote edo kontratazio organoaren errekerimenduari erantzuten ez badiote, ez da beharrezkoa izango aurrekontu gehiago eskatzea.
- c) Jasotako eskaintzak eta hautatutako eskaintzaren justifikazioa, nolahi ere, espedientearen zati izango dira. Hautaketa honela justifikatu ahal izango da:

(según el apartado 3 de esta instrucción), que podrá ser simultánea.

Por lo tanto, en este tipo de expedientes no se requiere ni la elaboración de pliegos administrativos ni técnicos, ni la publicación de la licitación en la plataforma de contratación de Euskadi.

Adjudicación.

Los contratos menores podrán adjudicarse directamente a cualquier empresario con capacidad de obrar y que cuente con la habilitación profesional necesaria para realizar la prestación.

En ausencia de regulación propia de cada entidad, y según la Resolución de 6 de marzo de 2019, de la Oficina Independiente de Regulación y Supervisión de la Contratación, por la que se publica la Instrucción 1/2019, de 28 de febrero, como normativa supletoria, se deben seguir los siguientes pasos:

- a) De acuerdo con el principio de competencia, y como medida antifraude y de lucha contra la corrupción, el órgano de contratación solicitará, al menos, tres presupuestos, debiendo quedar ello suficientemente acreditado en el expediente.
- b) Si las empresas a las que se les hubiera solicitado presupuesto declinasen la oferta o no respondiesen al requerimiento del órgano de contratación, no será necesario solicitar más presupuestos.
- c) Las ofertas recibidas, así como la justificación de la seleccionada formarán, en todo caso, parte del expediente. En cuanto a la justificación de la elección, se podrá realizar alternativamente:



1. Preziorik baxuena duen eskaintza.
2. Beste eskaintza bat, betiere besteen aldean dituen abantaila teknikoak txosten bidez justifikatuta.

d) Hiru eskaintza eskatzerik ez badago, horren justifikazio arrazoitua erantsi beharko zaio espedienteari.

1. A la oferta que presente el precio más bajo.
2. A otra oferta, siempre justificando mediante informe sus ventajas técnicas sobre el resto.

d) De no ser posible la solicitud de tres ofertas, deberá incorporarse en el expediente justificación motivada de tal extremo.

Iraupena:

Kontratu txikiek ezin dute urtebete baino gehiago iraun, eta ezin dira luzatu.

Hala ere, obra kontratu txiki baten zerbitzu osagarrien kontratuak ere kontratu txiki gisa izapidetu ahal izango dira, nahiz eta iraupena urtebetetik gorakoa izan, baldin eta kontratu txiki horien baldintza orokorrak betetzen badituzte eta gehienez ere 30 hilabeteko iraupena badute, eta baldin eta obra kontratu nagusian ezarritako berme aldiaren iraupenak eta kontratu nagusi horren likidazioarekin lotutako lanek soilik justifikatzen badute urtebete baino gehiagoko iraupena.

Gauzaten hastea, lanak hartzea eta faktura onestea:

Gauzatzeko epea adjudikazioa jakinaraztean (zerbitzuak eta hornidurak) eta zuinketa egiaztatzeko akta egitean (obrak) hasiko da.

Lanak amaitzean, harrera edo adostasun egintza formal eta positibo bat egin behar da, kontratuaren xedea entregatu edo gauzatu eta hurrengo hilabetearen barruan.

Duración:

Los contratos menores no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga.

No obstante, Los contratos de servicios complementarios de un contrato menor de obras podrán tramitarse también como contratos menores, aun cuando su duración exceda del año, siempre que cumplan los requisitos generales de dichos contratos menores y, que su duración no exceda de 30 meses y que el exceso sobre el año de duración venga justificado exclusivamente por la duración del período de garantía establecido en el contrato de obras principal y los trabajos relacionados con la liquidación de dicho contrato principal.

Inicio de la ejecución, recepción y aprobación de la factura.

El plazo de ejecución comenzará con la notificación de la adjudicación (servicios y suministros) y con el acta de comprobación del replanteo (obras).

A la finalización de los trabajos se realizará un acto formal y positivo de recepción o conformidad dentro del mes siguiente a la entrega o realización del objeto del contrato.



Kontratua amaitzean, behar bezala onetsitako faktura eta ordainketa erantsi behar zaizkio espedienteari. Administrazioak zuzen egindako lan batengatik jasotzen duen edozein fakturatan bezala, onetsi eta hogeita hamar eguneko epean ordaindu behar da, baldin eta kontratistak faktura garaiz eta forma egokian aurkezteko betebeharra bete badu hogeita hamar eguneko epean, salgaiak entregatu edo zerbitzua ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Argitaratzea:

Kontratu txikiak gutxienez hiru hilean behin argitaratu behar dira. Hau da kontratu mota horretarako argitaratu beharreko gutxieneko informazioa:

- Xedea eta iraupena.
- Adjudikazioaren zenbatekoa, BEZa barne.
- Adjudikaziodunaren nortasuna; kontratuak adjudikaziodunaren nortasunaren arabera antolatu behar dira.

Ez da beharrezkoa 5.000 eurotik beherako balioa duten kontratuak argitaratzea.

Laburpena:

Hauek dira jarraitu beharreko urratsak:

1. Kontratuaren beharrari buruzko txostena egitea, eta aurrekontua edo proiektua, obra kontratueterako.
2. Hiru eskaintza eskatzea.
3. Kontratua eta adjudikazioa onestea eta

A la finalización del contrato, se incorporará al expediente la factura correspondiente, debidamente aprobada, y el pago de la misma. Como en cualquier factura recibida por la administración de un trabajo realizado correctamente, existe la obligación de abonarla dentro de los treinta días siguientes a la aprobación de la misma, siempre que el contratista haya cumplido la obligación de presentar la factura, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.

Publicación:

Los contratos menores se publicarán al menos trimestralmente. La información a publicar para este tipo de contratos será, al menos:

- Su objeto y duración
- El importe de adjudicación, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido
- La identidad del adjudicatario, ordenándose los contratos por la identidad del adjudicatario.

No será necesario publicar los contratos cuyo valor sea inferior a 5.000 euros, IVA excluido.

Resumen:

Los pasos a seguir son:

1. Informe de necesidad del contrato y presupuesto o proyecto para los contratos de obras.
2. Petición de tres ofertas.
3. Aprobación del contrato, de la adjudicación y justificación de la oferta



aukeratutako eskaintza justifikatzea.

4. Lanen harrera egintza.
5. Faktura onestea eta ordaintzea.
6. Adjudikazioak kontratzailearen profilean argitaratzea hiru hilean behin, hala badagokio.

elegida.

4. Acto de recepción de los trabajos.
5. Aprobación de la factura y pago de la misma.
6. Publicación, en su caso, en el perfil del contratante de manera trimestral de las adjudicaciones.

Eduardo Alday Galán

Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren
zerbitzu burua.

Jefe de Servicio de Administración Local y Reto
Demográfico